



<https://irakaskuntza.lab.eus/>

✉ **Araba:** 648735679
heziketabereziaraaba@lab.eus
Bizkaia: 666778152 / 666771867
heziketaberezia@lab.eus
heziketabereziabizkaia@lab.eus
Gipuzkoa: 666775703 / 673462639
heziketabereziagipuzkoa@lab.eus
heziketabereziagipuzkoa1@lab.eus

Lan Hitzarmenaren negoziaketaren bukaerarako mahai negoziatzaileen deialdiak jaso ditugu

Gehiengoak sinatuz gero lan baldintzak hobetuko dituen hitzarmena izango dugu.

Hezkuntza sailak urriaren 2an sindikatuoi akordio partzial baten proposamena helarazi zigen. Bertan harremanik ez duten bi gairen inguruko proposamenak daude. Alde batetik, Zeinu Hizkuntzako Interpretteen zerrendetan dagoen ordezkogai falta konpontzeko titulazio berriak onartzeko proposamena eta beste alde batetik, LEP merezimendu lehiaketaren lanpostuen jabetzak 2025eko irailaren 1ean formalizatzeko proposamena.

LABetik argi dugu ez dela momentua akordio partzialak egiteko. Lan Hitzarmena bere osotasunean isteko garaia da. Horregatik Hezkuntza Sailari negoziazio egutegi bat eskatu diogu eta Zeinu Hizkuntzako Interpretteen titulazioen proposamena lan hitzarmenaren negoziazioan txertatzea.

Zeinu Hizkuntzako Interpretteen zerrendetan dagoen arazoa aspaldi jakinarazi diogu Hezkuntza Sailari eta hau konpontzeko eta kolektiboari dagokion titulazioak onartzeko proposamena egin genuen 2024ko urtarrilaren 31n.

LEP Merezimendu lehiaketari dagokionez, LABetik 2024ko irailerako prozesua bukatuta egotea eskatu badugu ere, administrazioari berandu egin zaio. LABetik egindako proposamena aztertzen ari gara, betiere abenduaren 31 baino lehen finko izaera eskuratzea helburu izanik eta lekualdatze lehiaketa prozesua hurrengo ikasturtean ere egin behar dela jakinik.

Gauzak horrela, jaso dugun azken berria urriaren 22 eta 29rako mahai negoziatzaileen deialdia da. Urriaren 29an Heziketa Bereziko hitzarmen berria sinatzeko eta LEParen inguruan erabakiren bat sinatzeko bilera izatea proposatu dute.

Gogoratuko duzuenek, ekainaren 23an jaso genuen zirriborroari ekarpenak egin genizkion. Ez genuen erantzunik jaso mahai guztiak bertan behera utzi zituztelako. [Mobilizazioak](#).

Momentu honetan, Lan hitzarmenaren zirriborro berriaren zain gaude. Dagozkion ekarpenak egingo dizkiogu langile kolektibo guztietan lan baldintzetan hobekuntzak lortu bidean.

Hemen negoziazioa eta mobilizazioen bitartez lortutakoak laburbiltzen duen [taula](#).

Heziketa Bereziko kolektibo guztientzako onurak ekarriko dituen lan hitzarmena lortzera **goaz!**

